

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

SEGURTASUN SAILA

449

EBAZPENA, 2023ko urtarrilaren 11koa, Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean argitaratu dela 2023ko urtarrilaren 10eko Ebazpena, Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Ofizial Kategoriako karrerako funtzionarioak izendatzen dituen

olizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiaren Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Ofizial Kategorian sartzeko hautaketa prozedurarako deialdiari buruzko 2021eko martxoaren 2ko Ebazpenaren hamaseigarren oinarriarekin bat etorritik (EHAA, 58. zk., martxoaren 23koa), eta Segurtasun Sailaren egitura organikoari eta funtzionalari buruzko urtarrilaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 9. artikulua ematen dizkidan eskumenak direla bide, ondoko hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jakinarazten da 2023ko urtarrilaren 11n argitaratu dela Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean Administrazio eta Zerbitzuen sailburordearen 2023ko urtarrilaren 10eko Ebazpena, Ertzaintzaren Ikuskapen Eskalako Ofizial Kategoriako karrerako funtzionarioak izendatzen dituen.

Bigarrena.– Ebazpen honekin ez da amaitzen administrazio-bidea, eta interesdunek, haren kontra, gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Segurtasuneko sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urtarrilaren 11.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburordea,
MIREN GOITIA GABIOLA.